



Landarbaso Abesbatzak bi sari garrantzitsu Kalifornian

"Taldeak inoiz aurre egin dion erronkarik garrantzitsuena izan da hauxe: Ameriketara bidaiatu eta bertako lehiaketa batean bi sari eskuratu. 2005ean San Luis Obispora. joateko gonbita egin zigitenean, ia ezinezkotzat jotzen genuen 40 pertsona Kaliforniara eramatea, baina aurtengoan amets hori egi bilakatu da. Taldeak lan izugarria egin du bai antolakuntzan eta baita musika arloan ere. Indarberrituta bueltatu gara esperientzi honetatik". Hauek dira Iñaki Tolaretxipi zuzendariaren hitzak. Sarritan desio eta ametsak egi bihurtzeko moduak badaudela azaltzen du Landarbasoren bidai honek.

Landarbaso Abesbatzak Kaliforniatik, San Luis Obispone ospatutako California Internacional Choral Festival 2007an, bi sari garrantzitsu ekarri ditu: folkloreko modalitateean bigarren saria eta derrigorrezko obren modalitateean hirugarrena.

Lehenengo aldiz antolatu dute Estatu Batuetako San Luis Obispone lehiaketa hau eta Landarbasok 2005ean Spittal-eko (Austria) lehiaketan jaso zuen bertara joateko gonbita. Hiru modalitate desberdinetan parte hartu du abesbatzak ekainaren 30 eta uztailaren 1ean egin zen lehiaketan. Hiru modalitateetan emaitzak paregabeak izan dira, hiru modalitateetan 90 puntutik gora lortu baititu koroak. Lehiaketako irabazlea, Europa eta Ameriketako lehiaketa desberdinetan lehian bost hilabete daramatzan Imusicapella Chamber Choir abesbatza filipinarra izan da, baina Landarbaso oso gerto izan du hainbat modalitateetan. Hauxek izan dira azken emaitzak:

Folklore modalitatea:

- 1.- Imusicapella Chamber Choir- Imus, Filipinak (97 puntu).
- 2.- Landarbaso Abesbatza, Errenteria, Gipuzkoa (94 puntu).





3.- The Choral Project, San Jose, Kalifornia (93 puntu).

Folklore modalitatean Landarbasok David Azurzaren "Loriak udan", Julen Ezkurraren "Aritz Adarrean-Katalin" eta Iñaki Tolaretxipiren "Phartitze Trixte Huntan abestu zituen". Lehenengo aldia da nazioarte mailako lehiaketa batean folkloreko modalitatean koroak sari bat eskuratzentz duela.

Derrigorrezko obren modalitatea:

- 1.- Imusicapella Chamber Choir- Imus, Filipinak (97 puntu).
- 2.- The Choral Project, San Jose, Kalifornia (95 puntu).
- 3.- Landarbaso Abesbatza, Errenteria, Gipuzkoa (90 puntu).

J.Pieterszoon Sweelinck-en "Cantate Domino" eta Morten Lauridsen-en "O Magnum Misterium" izan ziren antolakuntzak derrigorrezko obra bezala aukeratu zituenak eta Landarbasok programa osatzeko G. Orban-en "Psalmu 126 Zsoltár" aurkeztu zuen.

Aukera libreko obren modalitatea:

- 1.- The Choral Project, San Jose, Kalifornia (97 puntu).
- 2.- Imusicapella Chamber Choir- Imus, Filipinak (95 puntu).
- 3.- The Philippine Saringhimug Singers- San Francisco, Kalifornia (92 puntu).
- 4.- Landarbaso Abesbatza, Errenteria, Gipuzkoa (91 puntu).

Landarbasok programa indartsua eraman zuen: W. Hawley-ren "Vita la Mia Vita", Alberto Grauren "Binama" eta David Azurzaren "Ohiu hau".

Abesbatza irabazleek gain, Finlandia, Uganda eta Estatu Batuetako koroak aritu dira lehian eta azpimarragarria da abesbatzek beraien artean izan duten elkar ezagutze eta harreman bikaina.

Indar handiz hasi den lehiaketa honetan Landarbasok bere aztarna utzi du, baina Ameriketako esperientzia hau ez zen lehiaketarekin bukatu. Abesbatzak Yosemitiko Parkea bisitatu ostean, San Franciscora egin zuen bidaia eta han hiriko hegoaldeko EUSKAL ETXEAN kontzertu bat eskaintzeko aukera izan zuen. Uztailaren 6an kontzertua eta afaria antolatu zuten Euskal Etxeko arduradunek, Euskal Etxearen 25. urteurrena ospatzen ari direla aprobetxatuz. Bertako euskal jatorria duten euskaldun-amerikarrekin kantu-an aritzeko aukera paregabea izan zen.

Landarbaso Abesbatza vuelve con dos importantes premios de América

"Ha sido el reto más importante que ha afrontado el grupo hasta la fecha: viajar a América y ganar dos importantes premios en el concurso en el que participó. El Coro recibió la invitación para viajar a San Luis Obispo en el 2005 y por aquel entonces pensábamos que sería imposible llevar a 40 personas a California, pero este año hemos hecho realidad ese sueño. El grupo ha realizado un trabajo extraordinario tanto organizativa como musicalmente y hemos vuelto reforzados." Así resume su experiencia americana Iñaki Tolaretxipi,

director del coro. Este viaje del Coro Landarboso demuestra que en ocasiones pueden hacerse realidad tanto los deseos como los sueños.

Landarboso Abesbatza ha participado en el *California Internacional Choral Festival 2007* de San Luis Obispo, donde ha cosechado importantes éxitos: segundo premio en la modalidad de folklore y tercero en la modalidad de obras obligadas.

Ha sido la primera edición de este concurso celebrado en San Luis Obispo. Landarboso recibió la invitación para acudir a este concurso allá por el año 2005 en el concurso de Spittal (Austria) y ha participado en las tres modalidades que se desarrollaron los días 30 de junio y 1 de julio. En las tres modalidades el Coro obtuvo resultados destacados, ya que siempre ha estado por encima de los 90 puntos. El ganador del concurso fue el Coro filipino *Imusicapella Chamber Choir*, que llevaba cinco meses concursando en diferentes certámenes europeos y americanos. Éstos fueron los resultados finales:

Modalidad Folklore:

- 1.- Imusicapella Chamber Choir- Imus, Filipinas (97 puntos).
- 2.- Landarboso Abesbatza, Errenerria, Gipuzkoa (94 puntos).
- 3.- The Choral Project, San Jose, California (93 puntos).

En la modalidad de Folklore el coro Landarboso interpretó las obras *Loriak udan* de David Azurza, *Aritz Adarrean-Katalin* de Julen Ezkerra y *Phartitze Trixte Huntan* de Iñaki Tolaretxipi. Esta es la primera vez que el coro consigue un premio en la modalidad de folklore en un certamen internacional.

Modalidad de obras obligadas:

- 1.- Imusicapella Chamber Choir- Imus, Filipinas (97 puntos).
- 2.- The Choral Project, San Jose, California (95 puntos).
- 3.- Landarboso Abesbatza, Errenerria, Gipuzkoa (90 puntos).

La organización estableció como obras obligadas *Cantate Domino* de J. Pieterszoon Sweelinck y *O Magnum Misterium* de Morten Lauridsen y el coro completó la modalidad con la interpretación de *Psalmu 126 Zsoltár* de G. Orban.

Modalidad de obras de libre elección:

- 1.- The Choral Project, San Jose, California (97 puntos).
- 2.- Imusicapella Chamber Choir- Imus, Filipinas (95 puntos).
- 3.- The Philippine Saringhimug Singers- San Francisco, California (92 puntos).
- 4.- Landarboso Abesbatza, Errenerria, Gipuzkoa (91 puntos).



Landarbaso presentó un programa intenso en esta modalidad: *Vita la Mia Vita* de W. Hawley, *Binama* de Alberto Grau y *Oihu hau* de David Azurza.

Además de los coros ganadores, participaron en el concurso coros provenientes de Finlandia, Uganda y Estados Unidos. Es de recalcar la relación y conocimiento mutuo que han tenido los coros entre sí.

En este concurso que ha nacido con gran fuerza, Landarbaso ha dejado su huella, pero la experiencia

americana de Landarbaso no terminó ahí. El Coro visitó el Parque Nacional de Yosemite, para más tarde viajar a San Francisco, donde ofreció un concierto en la EUSKAL ETXEA de San Francisco Sur, dentro de las celebraciones del 25 aniversario de su constitución. Resultó una inmejorable posibilidad de compartir la música con vasco-americanos de origen euskaldun. ■

